

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak enpresako sektore publikoak duen zereginari buruzko hausnarketa-prozesu bat irekiko du

Barkos Lehendakaria Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko (NEKP) administrazio-kontseiluaren buru izan da, eta korporazio horri gardentasun eta enplegu-kalitate handiagoa eman nahi zaizkio

Miércoles, 02 de septiembre de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) 2015-2019 legealdi berrian egindako lehen administrazio-kontseiluaren buru izan da gaur arratsaldean. Enpresako sektore publikoak izango duen zereginari buruz Gobernuak hausnarketa-prozesu bat ireki nahi duela adierazi du bertan.

Barkosekin batera izan dira ere, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi eta Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburu, administrazio-kontseilu horretan Gobernuko ordezkariak izango diren Nafarroako Gobernuko hiru kideak: Nafarroako Parlamentuak beste hiru ordezkari izendatzeko ahalmena du, eta gainerako hirurak ospe handiko profesionalen artean izendatu daitezke.

Lehendakariak legealdiko lehen kontseilu honetan azaldu eta babestu ditu, Foru Gobernuari eusten dioten lau talde parlamentarioek lortutako programa-akordioak sustatu nahi dituen hiru neurriak, enpresako sektore publikoakri lotutako neurriak: gardentasun handiagoa NEKPko kontratazioan; bertako langileen lan-baldintzak finkatu eta

hobetzea; NEKPari buruzko hausnarketa estrategikoko prozesu bat irekitzea eta enpresako sektore publikoak zer eginkizun duen.

Gaur egindako administrazio-kontseiluan, gainera, honako hau erabaki da: NEKPko finantza-zuzendari Cesar Esparza enpresataldeko behin-behineko koordinazioaz ardura dadila , harik eta zuzendari nagusi berri izendatzen den arte, kargu hori Jorge San Miguelek utzi ondoren, gaur arratsaldean ere hartutako neurria.